

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sopelako Udala****Sopelako gizabideari espazio publikoaren erabilera eta hiripaisaiaren babesa arautuko duen Ordenantza hasiera batez onartzea,**

Udalbatzak 2022ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zaio Sopelako espazio publikoaren erabilera eta hiri-paisaiaren babesa arautzen duen gizalegeari buruzko Ordenantzari.

Erregelamendu hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazio edo iradokizun horiek. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkurak berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Jendaurreko informazioaren eta interesdunentzako entzunaldiaren denboraldian iradokizun, erreklamazio edo alegaziorik ez badago, aldezturik Animaliak eduki eta babesteko Sopelako udal ordenantza arautzen duen Ordenantza behin betiko onartuko da. Une horretan 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, tokiko araubidearen oinarri buruzkoak, 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarkien oholtzan eta bere web orrian argitaratuko da.

Sopelan, 2022ko azaroaren 4an.— Alkatea, Josu Mirena Landaluze Zarandona

**GIZABIDEARI BURUZKO ORDENANTZA, ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA HIRI-PAISAIAREN BABESA ARAUTZEKOA****ZIOEN AZALPENA**

Eraikin, kale, parke eta plaza multzoa baino zerbait gehiago da hiria. Hiria, funtsean, bertako herritarrek osatzen dute. Eurek partekatzen dute erakundeekin, eragile sozia- lekin eta ekonomikoekin hiria eraikitzeko eta bizikidetzaren hobetzeko zeregin kolektiboa.

Hiria egiteko erantzukizun partekatuak gizalegezko portaerako jarraibide batzuk betetzea eskatzen du, herritarren askatasuna ahalbidetzeko, betiere besteekiko errespetuaren funtsezko muga izanik, eta hiri- eta natura-ondarea eta ondasun publikoak zaintzeko eta herritarren bizikidetzaren harmonian bermatzeko.

Sopela gizarte mailan kohesionatuagoa, zibikoagoa, garbiagoa eta abegitsuagoa izatea, pertsonen eskubideak errespetatuta eta ondarea, espazio publikoak eta hiri-paisaia babestuta, sopoloztar guztien inplikazioa eta parte-hartzea eskatzen duen hiri-eredua eratzea da.

Gizalegez jokatzeko herritarrekiko harremanei eragiten dien konpromisoa da. Gutxiengo baten gizalegearen kontrako jokabideek, guztion ondare diren ondasun eta espazioak kaltetzeaz gain, bizikidetzari eraso egiten diote, eta herritar gehienekiko elkartasunik eza eta errespeturik eza ere badakarte, herritarrek euren eskubideak eta betebeharrak gizalegez onartzen baitituzte.

Askotan, espazio publikoetan egindako hobekuntzak ez dira sendoak, espazio horien erabilera desegokiagatik azkar hondatzen direlako; horrek frustrazioa eragiten du.

Sopelan, hauexek eragindako arazoak jasaten ditugu: pintadek, grafitiek eta kartekek, etxeko animalien gorrotek, lurrera botatako zikinkeriek, kontrolik gabeko publizitateek, motoek eta hots-kutsaduraren gehieneko mailak gainditzen dituzten hainbat jarduerak, ekintza bandalikoek hondatutako hiri-altzariek eta haur-jokoek, zaborren edukiontzien erabilera desegokiak, legez kanpoko isurketek. etab.

Sopelako Udalak, hiriaren presentzia eta herritarren bizikidetzaren hobetzeko asmoz, ordenantza hau prestatu du jarrera eta portaera arduragabeak eta axolagabeak zuzentzeko beste tresna bat den aldetik.

Ilido horretan, ordenantza honen helburua da, funtsean, bideetan eta gainerako espazio publikoetan jokatzeko oinarritzeko arauak ezartzea, pertsonen askatasuna ahalbidetzeko, hiriko hiri- eta natura-ondarea errespetatuz eta bizi garen ingurunea zainduz.

**ATARIKO TITULUA****I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea da herritarrek espazio publikoetan duten jokabidea arautzea eta bide publikoa garbi izaten saiatzea, bertan izaten diren erabilerei dagokienez:

- Bide publikoa normaltasunez erabiltzea.
- Bide publikoaren erabilera berezia.
- Bide publikoaren erabilera pribatiboa.
- Zerbitzu publikoen oinarritzat erabiltzea.
- Obra publikoak eta pribatuak egiteko behar den erabilera.

Ordenantza honen xedea da, halaber, Sopelako Udalaren prozedura arauen eta lizentzien araubidearen ordenantzaren arautze osagarria egitea.

**2. artikulua. — Aplikazio-eremua**

Ordenantza hau Sopela udal-mugarte osoan aplikatuko da.

**3. artikulua. — Bide publikoa erabiltzeko printzipio orokorrak**

1. Bertan dauden bide publikoak, espazio publikoak eta instalazioak eta hiri-altzariak herritarren erabilera orokorrera eta gozamenara bideratzen dira, betiere ondasunen izaeraren arabera eta askatasun indibidualaren eta gainerako pertsonetikiko errespetuaren gaineko printzipioak egoki uztartuz.

2. Bide publikoan egiten diren jarduerak ezin dute besteen erabilera orokorrerako eskubidea mugatu, guztien erabilera bereziko edo erabilera pribatiborako lizentzia edo emakida dagoenean izan ezik.

3. Guztien erabilera orokorrek lehentasuna izango dute beste erabilera batzuen aurretik, baina ahaleginak egingo dira azken horiek bateratzeko eta ahalbidetzeko, interes pribatuei eusteko ezinbestekoak direnean eta interes publikoari kalte handirik eragiten ez diotenean.

**4. artikulua. — Erabilitako kontzeptuen terminologia**

Hauxe da Ordenantza honetan erabilitako kontzeptuen terminologia:

1.

*Bide publikoa*: Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikotzat hartzen dira kaleak, plazak, zirkulazio-bideak, pasealekuak, etorbideak, espaloiak, bulebarrak, parkeak eta lorategiak, bide-tunelak, eraikinen fatxadak eta herritarren erabilera orokorreko erabilera publikoko gainerako ondasunak. Era berean, arau honen aurreikuspenak urbanizatu gabeko udal jabetzako eremuetan eta Udalak, udal erakunde autonomoek eta mendeko erakundeek kudeatutako beste espazio publiko batzuetan aplikatuko dira.

2.

*Hiri-altzariak*: Izendapen honen barruan sartzen dira udalak bide publikoetan jarritako zuhaitzak, bankuak, paperontziak, jokoak, iturriak, farolak, seinaleztapenak, hondakinen edukiontziak, estatuak, eskulturak, jardinerak, kioskoak, markesinak eta gainerako elementuak, zuzenean edo zeharka horretarako hitzarmena edo kontratua sinatzen duen enpresa edo erakundeek jarritakoak.

3.

*Hondakinak*: Hondakina da apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskineko kategoriarren batean sartuta dagoen edozein substantzia, materia edo produktu, edukitzaileak horiek alde batera uzteko asmoa edo betebeharra badu. Etxeko hondakinak, saltokietakoak, bulegoetakoak eta zerbitzuetakoak hiri-hondakintzat hartuko dira, baita beren izaeragatik edo osaeragatik etxeko hondakinekin pareka daitezkeenak ere.

4.

*Tresna arriskutsuak*: Ordenantza honen ondorioetarako, arriskutsutzat hartuko dira tresna ebakitzaila eta sendo guztiak, baita beren izaeragatik eta ezaugarriengatik herritarren osotasun fisikoari kalte egin diezaioketenak ere, lanbide edo kirol eremuetako berezko objektuak barne, betiere sortu zireneko erabilerarekin bat ez datozen inguruabar berezietan eta denboraren gaineko inguruabarretan eramaten baldin badira. Adibidez, hauek aipatzen dira: mailuak, mazoak, beisboleko bateak, borroka-arteetan edo kontaktu fisikoko kirolean erabiltzen diren objektuak, kateak, metalezko barrak, pioletak, etab.

5. *Eskekotasuna*: Eskekotasuntzat jotzen da bide publikoan limosna eskatzea.

6.

*Esku-orriak*: Halakotzat hartzen da inprimatutako propaganda hala nola liburuxkak, eranskailuak, triptikoak etab.

7.

*Establezimendua*: Ondorio horietarako, establezimendutzat hartzen da aurretiazko udal lizentzia behar duten jarduerak egiteko lokal oro.

8.

*Obrak*: Halakotzat hartuko dira eraisteko, urbanizatzeko, eraikitzeko, birgaitzeko, eraberritzeko, lurak mugitzeko, zangetarako, kanalizazioetarako eta antzeko beste lan batzuetarako obrak.



9.

*Kartelak:* Izen honen barruan sartzen dira higiezin publikoetan edo pribatuetan, zuhaitzetan edo altzari publikoetan jartzeko moduko euskarria duten propaganda mota guztiak: paskinak, kartelak, pankartak, banderatxoak, etab.

10.

*Pintadak:* Horrelakotzat hartuko dira bide publikoan, zoladuren gainean eta eraikinetako horma mota guztien gainean, edo egiturazko edozein elementuren edo hiri-altzarien gainean egindako inskripzioak, eskuzkoak zein bestelakoak. Hemen sartzen dira altzarietako eta bide publikoetako kristalak martzatzeko ekintzak.

**5. artikulua. — Lizentziak eta baimenak**

Obretarako udal lizentzietan eta ordenantza honetan ezarritako lizentzia eta baimenetan, fidantza ezarri ahal izango da garbitasunari eta apaindura publikoari buruzko betebeharrei erantzuteko.

## II. KAPITULUA

**BIDE PUBLIKOEN IZENAK ETA ERROTULUAK****6. artikulua. — Bide publikoen izenak**

Bide publikoak izen batekin identifikatuko dira, eta izen hori udal organo eskudunak onartu beharko du.

**7. artikulua. — Bide publikoetako errotuluak**

1. Bide publikoetako errotulazioa udal-eskumenekoa da, eta plaka, zutoinen edo antzekoen bidez egin ahal izango da. Plaka, zutoin edo antzekoren bat bide publiko bakoitzaren sarreran eta irteeran jarriko da, gutxienez, ondo ikusteko moduan. Plazetan, eraikin nagusia eta bertan sarrera nagusiak izango dira.

2. Errotulazioa higiezin pribatuetakoa fatxadetan egin ahal izango da, eta jabeek baimena eman beharko dute.

## I. TITULUA

**HERRITARREN JOKABIDEA BIDE PUBLIKOAN**

## I. KAPITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK****8. artikulua. — Bide publikoan oro har jokatzeko arauak**

1. Herritarrek hiriko bide eta espazio publikoak askatasunez erabiltzeko eskubidea dute. Eskubide hori gizalegez erabili behar da, eta ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenek eta beste pertsona batzuk eta ondasun pribatuak errespetatzeko betebeharrak mugatzen dute.

2. Bide publikoan duen jokabidearekin, inork ezin ditu gutxietsi beste pertsonen eskubideak, ezta egiteko askatasuna ere, eta ezin ditu iraindu oro har onartzen diren elkarbizitzako jarraibideak edo usteak.

3. Ez dago baimenduta bizilagunen atsedena eragozten duen zaratarik eragitea, ezta gaueko istiluetan parte hartzea ere, edo gaueko jolas-lokaletatik edo beste edozein lekutatik zarataka irtetea.

4. Ibilgailu motordunek, bereziki ziklomotorrek eta motozikletek, eragindako zaratei dagokienez, aplikatzekoa den araudian xedatutakoa beteko da.

**9. artikulua. — Bide publikoko elkartasuna**

1. Udalak herritarren jokabide solidarioa bultzatuko du bide publikoan, hain zuzen ere ibiltzeko edo orientatzeko laguntza behar duten pertsoneri, istripuak izan dituztenei edo arriskuan daudenei laguntza emateko. Era berean, igarotzean edo hiri-altzariak era-



biltzean lehentasuna gehien behar duten pertsonen emateko ohitura sustatuko da, baita bestelako elkartasuneko eta heziera oneko jarrerak ere.

2. Galdutako haurrak edo desgaituak edo anomalia fisiko edo psikiko nabarmena duten pertsonak aurkitzen dituzten pertsona guztiek agintaritzaren agentei jakinarazi behar diete.

#### **10. artikulua.— Ondasun publikoen erabilera**

Ondasun publikoak beren izaeraren arabera erabili behar dira, behar bezala erabiliz eta gainerako herritarrek gozatzeko duten eskubidea errespetatuz beti.

#### **11. artikulua.— Agintaritzako agenteen eta udal zerbitzuen portaera, eta beste neurri batzuk hartzea**

1. Agintaritzako agenteek eta udal zerbitzuetako kideek zuzentasunez eta kortesiaz tratatuko dituzte herritarrak uneoro, eta laguntza eta babesa emango diete. Esku-hartzeetan informazio egokia emango dute, beren jarduketan kausei eta helburuei buruzkoa.

2. Agintaritzako agenteek agindu eta jarraibide egokiak eman ahal izango dizkiete herritarrei, ordenantza honetan jasotako zehaztapenak bete ditzaten.

3. Pertsonekin indarra erabiltzea beharrezkoa den kasuetan, behar-beharrezkoak diren ekintzak egingo dira, eragindako pertsonen duintasuna erabat errespetatuz.

4. Udalak, halaber, informazio-kanpainak egin ahal izango ditu, eta beharrezkotzat jotzen diren bestelako zabalkunde- eta prestakuntza-neurriak hartu ahal izango ditu herritarren artean gizalegezko jokabidea sustatzeko eta Ordenantza hau betetzen dela bermatzeko.

## II. KAPITULUA

### GIZALEGEZKO JOKABIDEA

#### **12. artikulua.— Hiri-altzariak eta espazio publikoak babestea**

1. Herritar guztien betebeharra da hirian dauden hiri-altzariak behar bezala erabiltzea, eta altzariok errespetatu eta erabili behar dira, haien kontserbazio eta erabilera normala eragozten duen kalterik izan ez dezaten.

2. Debekatuta daude hiri-altzarietan kalteak eragiten dituzten edo eragin ditzaketen ekintzak eta, zehazki, hauexek:

a)

Bankuak erabilera naturalaren kontra erabiltzea. Ezin izango dira zapaldu, ezta kokatuta dauden lekutik atera ere, eta ezin izango dira hautsi, ezta zikindu ere, eta, oro har, erabilera edo kontserbazioa kaltetzen duen oro.

b)

Debekatuta dago helduek edo jolasean adierazitakoak baino adin handiagoko adingabeek jokoak erabiltzea haiek kaltetu edo suntsitzeko moduan.

c)

Debekatuta dago ezarritako paperontzietatik kanpora hondakinak, txikleak edo paperak botatzea.

d)

Debekatuta dago paperontziak iraultzea edo erauztea, baita haien itxura hondatzen duten bestelako ekintzak ere.

e)

Debekatuta dago hiri-hondakineterako paper-ontzi eta edukiontzietara tresna edo objektu arriskutsuak botatzea.

f)

Era berean, debekatuta dago animaliak hirian haurrentzako egokitutako jolas-guneetara sartzea.



Ondorio horietarako, tresna edo objektu arriskutsutzat hartuko dira pertsoneri kalteak eragin diezazkieketen guztiak hala nola animaliak eta animalien hondarrak, substantzia estupefazianteak kontsumitzeko xiringak eta tresnak, osasun-arretan erabilitako materialak, gaixotasunak kutsa edo zabal ditzaketanak, baita era guztietako droga toxikoak, estupefazianteak eta produktu kimikoak, erradioaktiboak, piroteknikoak edo lehergaiak ere.

g)

Debekatuta dago hoditeria, txorrota eta iturri publikoetako gainerako elementuetan edozein maneiatze egitea, ohiko funtzionamendukoak ez badira.

Debekatuta dago iturri apaingarrietan horiek zikintzea, ura garbitzeko erabiltzea, bainatzeko edo uretan sartzeko, baita edozein detergente, koloratzaile edo produktu kimiko botatzea ere.

h)

Debekatuta dago zuhaitzak, farolak, eskulturak edo estatuak, seinaleak eta hiriko gainerako apaingarriak kaltetzen dituen edozein ekintza edo maneiatze, baita horiek hondatzen dituen beste edozein ekintza ere.

i)

Debekatuta dago bide publikoan sua eta jarduera piroteknikoak egitea, udalaren eta administrazio eskudunen nahitaezko baimenik barik.

j)

Debekatuta dago usain gogaikarriak sortzen dituen edozein substantzia isurtzea edo iturrietara, urmaeletara edo bide publikora botatzea.

k)

Debekatuta dago zaborra edukiontzien kanpoaldean botatzea.

### **13. artikulua. — *Debeku espezifikoak***

1. Debekatuta dago bide publikoan kirol- edo jolas-jarduerak egitea, pertsoneri edo ondasunei kalteak edo eragozpenak eragin diezazkieketen objektuak edo tresnak erabiltzen badira, salbu eta horretarako baimendutako lekuetan eta guneeetan eta baimendutako ordutegietan. Plazetan, hala badagokio, jokia zein eremutan egin daitekeen adieraziko da. Adibidez, debekatuta dago kaleetan eta plazetan baloiekin, gurpil-ohol edo monopatinekin, disko hegalariekin eta boomerangekin jolastea, pertsonentzat eta jabetza pribatuentzat arrisku nabarmenak edo eragozpen nabarmenak eragiten badituzte.

2. Debekatuta dago bide publikoan petardoak edo bengalak eta edozein motatako objektuak proiektatzen dituen edozein tresna erabiltzea hala nola arkuak, zerbatanak, tiragomak eta pilota-jaurtigailuak.

3. Debekatuta dago motozikletetan eta ziklomotorretan zirkulatzea oinezkoen plazetatik edo zirkuituetatik, salbu-eta garajeetarako sarbideak badira.

### **14. artikulua. — *Baso, parke eta lorategi publikoak***

1. Herritarren betebeharra da hiriko baso, parke eta lorategi publikoak errespetatzea.

2. Bide publikoan landatutako baso, parke, lorategi, jardinera eta zuhaitzetako landare-espezieak behar bezala kontserbatzeko eta mantentzeko, debekatuta daude ekintza hauek:



- a) Landareak ostea.
- b) Soropila kaltetzea eta haren gainean kanpatzea, beren beregi baimendutako parkeetako eremuetan izan ezik.
- c) Zuhaitzak moztea, inaustea edo apurtzea, baita plaza, parke eta lorategietan motorrak eta ziklomotorrak erabiltzea ere.
- d) Azalak grabatu edo pintatzea, puntak iltzatzea, eskailera, erreminta eta aldamio-euskarriak lotzea eta kartelak jartzea.
- e) Edozein zuhaitzen gainean obrako materialak biltzea, aldi baterako bada ere, edo zuhaitzetan edozein motatako produktu toxikoak botatzea.
- f) Berdeguneetara zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea, kalte egin badiezaiekete edo estetika eta erabilera egokia kaltetu badezakete.
- g) Gorotzak uztea soropil eta lorategietan.
- h) Parke eta lorategietan sua piztea.
- i) Edozein motatako landareak landatzea udal-lorategietan, bereziki 47.3 artikuluan deskribatutako espezie alkotana edo inbaditzaileak direnean.
- j) Etxe partikularretan sortutako ongarria edo konposta parke eta lorategietan botatzea.

**15. artikulua. — *Drogen eta edari alkoholduen kontsumoa. Edariak taldean kontsumitzea. Armak eta tresna arriskutsuak***

1. Drogen eta edari alkoholduen kontsumoa, baita armak eta tresna arriskutsuak eramatea eta erabiltzea ere, arlo horretan indarrean dagoen legerian jasotako arauen arabera izango da.
2. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu drogak, substantzia estupefazianteak, psikotropikoak eta arma eta tresna arriskutsuak.

**16. artikulua. — *Eskekotasuna***

1. Adingabeek ezin dute eskean ibili udalerrian, eta adingabeak babestearen arloan indarrean dagoen legeriak xedatzen duena bete beharko da.
2. Agintaritzaren agenteek behar duten pertsonen jakinaraziko diete gizarte-zerbitzuak, udal zerbitzuak edo beste erakunde batzuenak daudela, behar duten sorospena eta laguntza eskatu ahal izan dezaten.
3. Udal mailako gizarte-zerbitzuek, beren egoera ikusita, gaua igarotzeko aterperik ez duten pertsonak artatuko dituzte, batez ere neguan.

**16. bis artikulua. — *Kaleko salmenta***

Debekatuta dago bide publikoan edo establezimenduetan edozein produkturen salmenta ibiltaria egitea udalaren baimenik gabe.

**II. TITULUA****BIDE PUBLIKOA GARBITZEA****I. KAPITULUA****BIDE PUBLIKOA GARBITZEA ERABILERA NORMALAGATIK****I. ATALA****BIDE PUBLIKOA GARBITZEA HERRITARREN ERABILERA KOMUN OROKORRAREN ONDORIOZ****17. artikulua.— Udalaren betebeharra**

Udal zerbitzuen erantzukizuna da hiriko espazio publikoak garbi eta osasungarri mantentzea. Horretarako, udalak dagokion zerbitzu publikoa emango du behar den intentsitatearekin, eta dagozkion zaintza- eta polizia-ahalmenak baliatuko ditu.

**18. artikulua.— Herritarren betebeharrak eta lankidetzak**

1. Herritar oro behartuta dago hiria, oro har, eta haren espazio publikoak, bereziki, garbi mantentzera.

2. Elurra egiten badu, hiri-finken jabeek lagundu beharko dute espaloietako elurra eta izotza garbitzen, fatxadari dagokion luzeran eta 1,50 metroko gutxieneko zabaleran, espaloien zabalera txikiagoa denean izan ezik, eta elurra espaloien ertzean utziko dute, zuhaitzak ukitu barik eta hustubideak edo estoldak oztopatu barik.

3. Udal zerbitzuek eta udaltzainek uneoro zaindu behar dute herritarrek garbiketaren arloan dituzten betebeharrak betetzen direla, eta eragindako kaltea berehala konpontzeko eskatu behar dute, dagokion salaketa egitea alde batera utzi gabe.

**19. artikulua.— Debeku espezifikoak.**

1. Debekatuta dago bide publikoa zikindu dezakeen edozein ekintza egitea, eta bereziki galarazita dago:

- Ibilgailuak bide publikoan garbitzea.
- Bide publikoan kaka egitea, pixa egitea eta txistua botatzea.
- Hiri-hondakinak maneatzea edo hautatzea, barreiatzen badira, bilketa zailduta edo ontziak aldatuta.
- Bide publikora hondarrak, hondakinak eta esku-orriak botatzea edo bertan uztea.

2. Esku-orriak botatzen badira, dagozkion udal zerbitzuek banaketa horren eraginpeko hiri-espazioa garbituko dute, eta emandako aparteko zerbitzuen kostua erantzuleei egotziko diete, dagozkion zehapenak alde batera utzi gabe.

3. Loreontziak edo landareak ureztatzea eta alfonbrak astintzea bide publikora ematen duten balkoietan, begiratokietan edo leihoetan, edo pertsonak ibiltzen diren barruko patioetan, 23:00etatik 9:00etara baino ezin izango da egin. Eragiketa horiek kalterik eta eragozpenik ez eragiteko moduan egingo dira.

4. Bereziki, debekatuta dago hildako animaliak zein animalia biziak abandonatzea.

**20. artikulua.— Hondakinak biltegitzea**

1. Hondakinak Udalak finkatutako leketan utzi beharko dira, Sopelako Etxeko eta Merkataritzako Hondakinei buruzko Udal Ordenantzan ezarritako moduan eta ordutegiaren barruan.

2. Debekatuta dago zabor-poltsetan eta bide publikoan jarritako edukiontzietan utzitako hondakinak berriz bilatzea eta ateratzea, obretako hondakinak biltzekoak barne.

**21. artikulua.— Paperontziak erabiltzea**

1. Bolumen txikiko hondakin solidoak, hala nola zigarrokin itzaliak, azalak, txikleak, paperak, poltsak, bilgarriak eta antzekoak, paperontzietan utzi behar dira, material birzi-





klagarriak direnean izan ezik. Kasu horretan, bide publikoan dauden gaikako bilketarako edukiontziak erabiliko dira.

2. Debehatuta dago paperontzietan uztea, Ordenantza honen 12.2.c) artikuluan aipatzen diren objektuez gain, hondakin solido piztuak eta beste edozein gai piztuta.

## II. ATALA

### GARBIKETA, MERKATARITZAKO ETA INDUSTRIAKO JARDUEREI DAGOKIENEZ

#### **22. artikulua. — *Ingurukoak garbitzea***

Merkataritzako edo industriako jarduera batek sarritan zikinkeria badakar inguruan, edo baimendutako espazioan terrazen kasuan, establezimenduaren titularrak garbi eduki beharko du kaltetutako bide publikoaren zatia, zuzenketa neurriei eta aginduzko lizentziei aplikatu beharreko araubidearen ondoriozko gainerako betebeharrei kalterik egin gabe.

#### **23. artikulua. — *Erakusleihoak***

Erakusleihoak, establezimenduak, saltokiak eta antzekoak kontu handiz garbituko dira, bide publikoa ez zikintzeko, eta oinezkoei enbarazurik ez egiteko moduko ordutegian.

#### **24. artikulua. — *Eguzki-oihalak eta pertsianak***

Beheko solairuko lokaletako toldo eta pertsianak egoera onean eta garbi mantendu beharko dira, eta kanpoko itxurak hala eskatzen duenean berrituko dira.

#### **25. artikulua. — *Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak***

Bide publikorako errotulu, plaka eta bereizgarri orok udal lizentzia behar du. Garbi mantendu beharko dira, eta hondatutakoak berriz jarri beharko dira.

#### **26. artikulua. — *Salmenta automatikoko makinak. Erakustokiak eta gainerako elementuak***

1. Debehatuta dago bide publikora zuzenean banatzen dituzten kontsumo-produktuak saltzeko makinak jartzea, udalaren behar den baimena izan barik.

2. Debehatuta dago bide publikoa okupatzea erakustokiek edo dagokion udal lizentziarik ez duen beste edozein objektu, instalazio edo elementuk.

#### **27. artikulua. — *Isuria***

Ontziratutako gabeko salgaiak edo ontziratutako gabeko edozein materia garraiatzen duten ibilgailuek kargatuta eta ekipatuta egon behar dute, bide publikora isurketarik ez egiteko moduan.

#### **28. artikulua. — *Zamalanak***

1. Edozein ibilgailuren zamalaren kasuan, zikindutako espaloiak eta galtzadak lan horiek amaitu eta berehala garbituko dira.

2. Garbiketa hori egitera behartuta daude zama-lanak egin diren establezimendu edo finen titularrak.

#### **29. artikulua. — *Hondartzak eta bainu-eremuak***

1) Udalerriko hondartza eta bainu-eremuetako erabiltzaileek debehatuta dute edozein hondakin zuzenean hondarrera edo arroketara botatzea. Horretarako ezarritako paperontziak erabili beharko dituzte, sortutako hondakin-frakzioaren arabera, edo espazio publikoan instalatutako beste edukiontzi edo biltegitratzeko sistema batera eraman beharko dute.

2) Hondartzetatik hurbil edo hondartzetan kokatutako txiringitoen, kioskoen, jate-txeen eta antzekoen titularrak ez dute barreiatutako zaborra sortu behar. Ho-



rretarako, beharrezko ontziak edo elementuak eduki beharko dituzte, eta horiek biltzeko eta garbitzeko ardura izango dute jarduera egiten den ordutegian eta jarduera amaitzen denean.

### III. ATALA

#### GARBIKETA, ANIMALIAK ERAMATEARI EDO EDUKITZEARI DAGOKIONEZ

##### **30. artikulua.— *Animalienganako tratua. Gorotzak***

1. Herritarrek behar bezala zaindu beharko dituzte etxeko animaliak, eta bereziki debekatuta dago animalia horiek bertan behera uztea.
2. Debekatuta dago txakurrek eta beste animalia batzuek gorozkiak haur-parkeetan, paseoetan, lorategietan edo bide publikoko beste edozein lekutan uztea. Gidatzen dituzten pertsonak bertan gorozkiak hustea eragotziko dute.
3. Gorozkiak bide publikoan uztea ezin bada saihestu, animalia jabeak edo hura gidatzen duen pertsonak berehala jaso beharko ditu. Animalia daraman pertsona izango da ez betetzearen erantzulea. Jabea edo eramailea agertzen ez bada, dagokion udal-zerbitzuak erretiratuko du animalia.

##### **31. artikulua.— *Animaliak eramatea***

Animaliak edukitzeari eta kontrolatzeari eta hirugarrenei eragindako kalteak prebenitzeari buruzko araudia beteko da uneoro.

### II. KAPITULUA

#### BIDE PUBLIKOA GARBITZEA, HERRITARREN ERABILERA KOMUN OROKORRAREN, ERABILERA PRIBATIBOAREN ETA EKITALDI PUBLIKOEN ONDORIOZ

##### **32. artikulua.— *Erabilera bereziak edo pribatiboak eragindako eremua garbitzea***

1. Erabilera komun bereziaren eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, baimendutako pertsona fisiko edo juridikoen edo erabilera horien emakidadunen erantzukizuna izango da.
2. Establezimendu eta terrazan titularrek, finakoak izan edo ez, hala nola tabernek, kafetegiek, kioskoek, salmenta-postuek eta antzekoek, garbi mantendu beharko dituzte instalazioak eta eraginpeko hiri-espazioa.
3. Udalak ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die, sortzen dituzten hondakinak biltzeko eta atxikitzeko, eta ontziak garbitzea ere egokituko zaie.
4. Salmenta ibiltaria baimentzen bada, saltzaileek garbi utzi beharko dute okupatutako eremua salmentak amaitu ondoren. Betebehar bera izango dute herrialdeko produktuen eguneroko merkatuko saltzaileek –baserritarrek–.
5. Ostalaritzako establezimenduek aprobetxatutako terrazan (iraunkorrek edo sa-soikoak) eta haietan instalatutako altzarien garbiketa orokorra ordubeteko epean egingo dute titularrek, establezimendua ixten denetik zenbatzen hasita, egunean garbitasunaren eta higienaren aldetik egoera onean mantentzea alde batera utzita, ekortzeko eta garbitzeko aldizkako lanen bidez.

##### **33. artikulua.— *Ekitaldi publikoak egitea***

1. Jabetza publikoko espazioetako ekitaldi baten antolatzaile pribatuak izango dira ekitaldi horren ondoriozko zikinkeriararen erantzule.
2. Hiri garbitzeko, antolatzaileek nahitaez eman behar diote udalari ekitaldi publiko lekuaren, ibilbidearen eta ordutegiaren berri. Udalak fidantza jartzeko eskatu ahal izango die, gerta litezkeen aparteko garbiketa-lanen arabera. Eraginpeko espazio publiko garbi-garbi badago, fidantza itzuliko zaie. Osterantzean, egin beharreko aparteko lanen zenbatekoa kenduko zaio.
3. Partaide asko biltzen diren ekitaldi publikoetan eta elikagaiak eta/edo edariak kontsumitzen diren tabernak, txosnak edo antzekoak jartzen direnetan, bildutakoek jen-



dearentzat irekita egongo diren komun publikoak izango dituzte. Halakorik ezean, erakundeak homologatutako komun eramangarriak instalatuko ditu, udaleko zerbitzu teknikoek adierazitako kopuruan eta kokalekuan.

4. Era berean, bide publikoan behin-behineko establezimendu mota horiek instalatzen direnean, aplikatu beharreko higiene eta osasun neurriak betetzeaz gain, beharrezkoa izango da ur-hartunea eta saneamendu-sarera hustea, baita neurri egokiak hartzea ere hondakinak gaika utz daitezen ondoren birziklatzeko.

#### **34. artikulua.— *Jaiak animaliekin***

Ekitaldiak edo jaiak egitean animaliak ere erabiltzen badira, antolatzaileak zikinkeria kendu beharko du, ekitaldia amaitu eta animaliak kendu bezain laster.

#### **35. artikulua.— *Kanpaldia***

1. Lur publikoetan edo pribatuetan ezin izango da kanpatu, ezta kanpin-dendarik edo horretarako ezarritako ibilgailurik instalatu ere, horretarako baimenik ez badute. Ezin izango da kozinatu edo aulkiak eta mahaiak zabaldu bide publikoan.

2. Agintaritzaren agenteek bide publikoa behar ez bezala okupatzen duten kanpin-denden, ibilgailuen edo edozein motatako materialen jabe edo erabiltzaileei eskatuko diete beren jarreran atzera egiteko, salaketa egitea alde batera utzi gabe. Uko egin ez gero, edo jabeak edo erabiltzaileak aurkitzea ezinezkoa izanez gero, agintaritzaren agenteek horiek berehala kentzeko behar diren bitartekoak jarri ahal izango dituzte, eta jabeek ordaindu beharko dituzte sortzen diren gastuak.

### III. KAPITULUA

#### **BIDE PUBLIKOA GARBITZEA OBRAK EGITEAN**

#### **36. artikulua.— *Neurriak hartzea***

1. Jarduera eta obra guztiek bide publikoa ez zikintzeko neurriak hartzeko bete-beharra ezartzen diote titularrari, nahitaezko lizentzien ondoriozkoa alde batera utzi gabe. Era berean, neurriak hartu beharko ditu ukituriko zatia maiztasun egokiarekin garbitzeko eta horren ondoriozko hondarrak kentzeko.

2. Udalak garbiketa-lanak egiteko eskatu ahal izango dio arduradunari.

3. Eraikitzen, birgaitzen, berritzen edo eraisten ari diren eraikinen kasuan, obraren kontratista izango da obrek eragindako bide publikoa garbitzearen arduraduna.

#### **37. artikulua.— *Obra babestea***

1. Zikinkeria prebenitzeko, bide publikoari eragiten dioten lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak bide publiko hori babestu beharko dute, ingurura egokitutako elementuak jarrita, baimendutako eremutik kanpo obrako lur eta material soberakinak zabaldu eta isuri ez daitezen.

2. Debekatuta dago bide publikoan obrak mugatu gabe uztea lurra, hareak, le-garrak eta gainerako materialak, baita eusteko eta hondeatzeko elementu mekanikoak eta eraikuntzako gainerako elementu osagarriak ere, dagokion obra-lizentzian jasotako beren beregiko udal baimena izan ezean, eta espazio hori beti garbi mantentzea.

3. Lanaldia amaitzean, bide publikoan egiten diren zangetako, kanalizazioetako eta abarretako lan-eremuak behar bezala babestu eta seinaleztatu beharko dira istripurik ez izateko, gaueko balizatzeko-elementuak barne.

#### **38. artikulua.— *Garbiketa-eremua***

1. Obra-esparruak leku egokia izan beharko du, galtzada zikindu dezaketan ibilgai-luak, bide publikora irten aurretik, euren gurpilak eta gainerako elementuak garbitzeko.

2. Prebentzio hori betetzen ez bada, dagokion zehapenez gain, Udaltzaingoak bide publikora sartzea debekatuko die obrako ibilgailu horiei.

**39. artikulua.— *Hormigoi-makinak***

1. Debehatuta dago hormigoia hormigoi-makina duen ibilgailuarekin garraiatzea deskarga-ahoa itxita eduki gabe, hormigoia bide publikora isurtzea eragozten duen gailu baten bidez.

2. Debehatuta dago hormigoi-makinak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.

3. Aurreko bi idatz-zatiak betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzule, eta obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularrak, berriz, erantzule subsidiario. Halaber, isuriko den hormigoia eta ukitutako bide publikoa garbitzera behartuta egongo da, dagozkion zehapenak alde batera utzi gabe.

**40. artikulua.— *Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzea***

1. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuek behar diren baldintzak beteko dituzte haien edukia bide publikora isurtzea saihesteko.

2. Lurren eta obra-hondakinen garraiolariak berehala garbitu beharko dute ukitutako bide-zatia, baldin eta bide publikoa zikindu egiten bada zamalanen eta garraioaren ondorioz.

3. Era berean, baimenduta ez dauden lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak edozein unetan kendu beharko dituzte, betiere udal agintaritzak hala eskatzen badie, dagozkion zehapenak alde batera utzi gabe.

**41. artikulua.— *Obrako edukiontzia***

1. Debehatuta dago bide publikoan edozein obra-hondakin uztea edo botatzea, baita edukiontziren batean uztea ere.

2. Obra-hondakinak eta obrako gainerako hondakinak Udalak baimendu dituen obretarako edukiontzietan utziko dira.

3. Behin beteta, obretarako edukiontzia modu egokian estali beharko dira, hondakin-materialak kanpora isur ez daitezzen.

4. Era berean, nahitaezkoa da edukiontzia estaltzea lan-ordutegia amaitzean.

**III. TITULUA****HIGIEZINAK KANPOTIK GARBITZEA****I. KAPITULUA****ERAIKIN PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK KANPOTIK GARBITZEA,  
ETA HIRI-PAISAIA ERRESPETATZEA****42. artikulua.— *Higiezinaren kanpoko elementuak eta zatiak garbitzea eta mantentzea***

1. Higiezinaren jabeak eta establezimenduen titularrak behartuta daude publikoki garbi edukitzera. Horiek garbitu, eraberritu edo iztuku beharko dituzte -betiere fatxaden, errotulu, mehelin, sarreren, sartzeko eskaileren eta, oro har, higiezinaren bide publikotik ikus daitezkeen elementu arkitektoniko eta material guztien izaerarekin bat etorritik- baldin eta zikin daudela ikusten bada edo Udalak hala agintzen badu, udal zerbitzuek txostena egin ondoren.

2. Burdin hesiak, balkoietako barandak, eguzki-oihaletako burdineria eta gainerako metalezko elementuak oxidorik gabe mantenduko dira, eta Udalak eskatzen duenean pintatu eta konpondu beharko dira.

**43. artikulua.— *Publizitatea***

1. Kanpoko publizitatea, edozein euskarritan eta edozein ezaugarri edo helburu duela ere, horretarako bereziki egokitutako lekuetan baino ezingo da jarri, eta aplikatzea zaion araudi espezifikoa bete beharko du.



2. Ildo horretatik, beren beregiko udal baimenik ezean, debekatuta dago inolako iragarkirik jartzea eraikin publikoen edo pribatuen fatxadan, ataripean, markesinetan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, hormetan, tuneletan, lurpeko pasabideetan eta, oro har, bereziki egokitutako lekuetatik kanpo. Era berean, debekatuta dago leku horietan edozein motatako eranskailu, kartel, paskin, pankarta edo banderatzxo politiko edo bestelakoak jartzea, Ordenantza honen 43.1 artikuluan ezarritako salbuespenekin.

#### **44. artikulua.— Kartelak eta banderatzxoak**

1. Udalak beren beregi baimendu ahal izango du bide publikoan, obretako hesietan eta baimendutako gainerako lekuetan kartelak eta banderatzxoak jartzea. Eta horiez gain, honako kasu hauetan ere baimendu ahal izango du:

- a) Hirian garrantzi handiko kultura, arte edo kirol ekitaldiak egiten direnean.
- b) Hiriarentzat interesgarriak diren kontzertuak, ekitaldiak edo erakusketak egiten laguntzen dutenean.
- c) Hauteskunde-kanpainetan, behar bezala baimendutako tokietan.

Interes orokorreko arrazoiak direnean, salbuespenez, adierazitakoez bestelako kasuetan ere baimena eman ahal izango da bide publikoan kartelak eta banderatzxoak jartzeko.

2. Honako artikulua honetan aipatzen den baimen-eskaerak zehaztapen hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- a) Kartel edo banderatzxoen edukia eta neurriak.
- b) Non jarriko diren.
- c) Zenbat denbora egongo diren jarrita.
- d) Hondakinak kentzeko eta izan litezkeen kalteak konpontzeko konpromisoa.

3. Eskerako eta baimeneko zehaztapenak bete beharko dituzte kartelak eta banderatzxoak. Ez dute barne hartuko azaleraren % 20 baino gehiago hartzen duen publizitaterik.

4. Emandako epea igaro bezain laster kenduko dira kartelak eta banderatzxoak. Sustatzaileari hala egiten ez bazaio, udal zerbitzuek kenduko dituzte, eta kostuak arduradunari egotziko zaizkio, egon daitezkeen zehapenak alde batera utzi gabe.

Ondorio berberak izango ditu baimenik gabe kokatzeak, baita baimendutakoa betetzen ez dutenean ere.

5. Artikulu honetan eta korrelatiboetan jasotako aurreikuspenak Sopolako Udalarari berari eta gainerako instituzio eta erakunde publikoei aplikatuko zaizkie.

#### **45. artikulua.— Eraikin bereziak**

1. Katalogatutako eraikinetan, eraikin historiko-artistikoetan eta beste eraikin nagusi batzuetan, ez da publizitaterik onartuko, eta ezingo da kartel, banderatzxo edo errotulurik erakutsi, salbu eta haien ezaugarrien berri ematen dutenak, eraikinean egiten diren jardueri buruzkoak edo zaharberritzeko edo birgaitzeko obrei buruzkoak.

#### **46. artikulua.— Pintadak eta grafitiak**

1. Debekatuta dago bide publikoan zein eraikin publiko edo partikularren fatxadetan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, estatuetan, monumentuetan eta, oro har, hiriko paisaiaren edozein elementutan pintatzea.

2. Grafitiak eta marrak ere debekatuta daude aurreko paragrafoan adierazitako eremuetan.

3. Eraikin publiko bat edo hiri-altzarien elementu bat pintatu, paperak jarri, kristalak marratu, kartelak itsatsi edo hondatzen duen beste edozein egintza egin bada, udalak enpresa edo pertsona arduradunari egotzi ahal izango dio dagozkion garbiketaren eta egokitzapenaren fakturen kostua, dagokion zehapena alde batera utzita.



## II. KAPITULUA

## URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA

**47. artikulua.—Espazio pribatuak garbitzea**

1. Urbanizazio pribatuetako espaloiak, pasabideak, galtzadak, plazak eta lorategiak garbitzea haien jabeei dagokie.

2. Jabeek etxadi, orube partikular, galeria komertzial eta antzekoetako barruko patioak garbitu beharko dituzte.

3. Debekatuta dago edozein landare inbaditzaile landatzea. Bereziki, EAEn ugariak diren espezieak.

- Mimosa (Acacia dealbata).
- Akazia (Acacia melanoxylon).
- Ailantoa (Ailanthus altissima).
- Kanabera (Arundo donax).
- Budleya (Buddleja davidii).
- Panpa-lezka (Cortaderia selloana).
- Krokosmia (Crocasmiax crocosmiiflora).
- Japoniako banbua (Fallopia japonica).
- Tupinambo (Helianthus tuberosus).
- Ezkila-lorea (Ipomoea indica).
- Txinako intxaurrondo (Pterocaryaxrehderiana).
- Sasiakazia (Robinia pseudoacacia).

Udalak espezie horiek kenarazi ditzake, betiere EAeko ibai-eremuetan landare inbaditzaileen espezieak kudeatzeko jardunbide egokien gidaliburuaren arabera; Uraren Euskal Agentziak —URAK— argitaratutako liburua da hori.

4. Udalak elementu pribatu horien guztien garbitasuna kontrolatu eta ikuskatuko du, eta horiek garbitzeko eskatuko die arduradunei, udal zerbitzuek horretarako ematen dituzten jarraibideen arabera.

5. Merkataritza-lokalen jabeek fatxadak egokitu egingo dituzte apaindurari, mantentzeari eta eraikuntzako ezaugarriei dagokienez, hirigintza ordenantzek horretarako ezartzen dituzten zehaztapenen arabera.

**48. artikulua.—Orube eta lursail pribatuak**

1. Orubeen eta lursailen jabeek 47.3 artikuluan zehaztutako landare inbaditzailerik gabe, hondakinik gabe eta osasungarritasun, higiene, segurtasun eta apaintasun publiko egoera egokian eduki beharko dituzte lursailok. Halaber, enpresa baimendu batek arratoiak eta intsektuak kendu beharko dizkie.

2. Artikulu honen lehenengo paragrafoan ezarritako egoera gertatzen ez bada, edo jabeak ageri-agerian azaltzen ez badira, Udalak, modu subsidiarioan eta legezko zorrotasun-mugekin, horretarako neurri egokiak hartuko ditu, eta lursailera aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako sartu ahal izango da, eta eragindako kostuak jabeei egutziko zaizkie.

**IV. TITULUA**  
**ZEHAPEN-ARAUBIDEA****I. ATALA**  
**ARAU-HAUSTEAK****49. artikulua.— Arau-haustek**

1. Administrazioko arau-haustea da ordenantza honetako xedapenak ez betetzea eta bertan ezarritako debekuak urratzea.

2. Ordenantza honetan xedatutakoaren arau-haustek Alkatezak zehatuko ditu, titulu honetan ezarritakoaren arabera, legeriak baimentzen dituen mugen barruan eta kasu bakoitzean egon daitezkeen erantzukizun zibil eta penalei kalterik egin gabe.

**50. artikulua.— Arau-hauste motak**

1. Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2. Arau-hauste arintzat hartuko dira honako artikulua hauetan ezarritakoa errespetatzen ez duten edo, hala badagokio, urratzen duten arau-haustek: 8.3, 12.2 (a, b, c izan ezik), 13, 14.2 (c, e eta f izan ezik), 16, 19.1, 20.2, 21.2, 22, 25, 26, 28, 29, 30.1, 31, 33, 34, 41.1.

Arau-hauste arina izango da jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea, kalte horien zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa ez denean.

3. Honako artikulua hauen arau-haustek larritzat joko dira:

14.2.e) (obrako materialak soilik biltzea), 14.2.f), 15.1, 35, 36, 37, 38, 39, 40.3, 42.2, 43, 44 eta 47.

Arau-hauste larritzat joko da jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea, kalte horien zenbatekoa 10.000 eurotik 1.000.000 eurora bitartekoa denean.

Arau-hauste larritzat joko da agintaritzaren agenteek honako ordenantza honetako xedapenak nahitaez betetzeari begira emandako agindua ez betetzea, baldin eta arau-hauste penala ez bada betiere.

Gainera, arau-hauste arina berriro egitea arau-hauste larritzat joko da.

4. Honako artikulua hauen arau-haustek oso larritzat joko dira: 14.2.c), 14.2.e) (produktu toxikoak bakarrik isurtzea), 19.4, 40.1, 45.1, 46 eta 47.3.

Jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea arau-hauste oso larritzat joko da, kalteak milioi bat eurotik gorakoak direnean.

Gainera, arau-hauste larri bat behin baino gehiagotan egitea arau-hauste oso larritzat joko da.

**51. artikulua.— Zehapenak**

1. Arau-hauste arinei 50 eta 200 euro bitarteko isuna ezarriko zaie; larriei, 201 eta 500 euro bitartekoa; eta oso larriei, 501 eta 3.000 euro bitartekoa.

2. Ordenantza hau ez betetzea arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo ez bada, arau-hauste arintzat joko da.

3. Ezar daitezkeen zehapenak gorabehera, jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteak behar bezala ordaindu behar dira, baita eragindako kalteak ere, hori guztia, dagozkion udal zerbitzuek ebaluatu ondoren. Kalte eta galera horien zenbatekoa zehapena ezartzeko eskumena duen organoak ezarriko du, betearazteko agindua erabiliz.

4. Arau-hauste larri edo oso larrietan berrerortzea gertatuz gero, arau-hauslea baimen eta emakiden titular izateko desgaituta deklaratu ahal izango da, urtebetetik hiru urtera bitarteko eperako.

5. Udaltzaingoak Ordenantza honen arau-haustek egiteko erabilitako tresnak, salgaiak, materiala eta tresnak konfiskatu ahal izango ditu, baita arau-haustea egitean lortutako emaitza ere, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

**52. artikulua.—Zehapenen ordezeko borondatezko lanak**

Arau-hauste baten ondorioz gainerako herritarrei eragindako kalteak ahal den neurrian konpontzeko, arau-hausleak zehapen ekonomikoa ordezteka eskatu ahal izango du, eta konpromisoa hartuko du komunitatearen onerako borondatezko lanak egiteko, gizalegezko jokabideak sortzeko edo antzeko ekintzek eragindako kalteak konpontzeko.

## II. ATALA

**KALTEA KONPONTZEA ETA GARBITASUNA BERREZARTZEA****53. artikulua.—Kalteak konpontzea**

1. Arau-hausleek eragindako kalteak erantzuleek ordainduko dituzte beti.
2. Udalak, dagokion zehapen-espeditentea hasi ondoren, modu subsidiarioan joka dezake, eta, ondorioz, gauzak arau-haustea egin aurretik zeuden bezala uzteko behar diren egintzak gauzatuko ditu, betebeharra duenaren kontura, dagozkion zehapenak alde batera utzi gabe.
3. Udaltzaingoak aginduko du bertan behera utz ditzatela ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten egintza agerikoak edo goriak, eta eragotzi egin beharko du obeditzen ez duten arau-hausleek egintza horiek betetzen jarrai dezaten, dagozkion zehapena alde batera utzi gabe.

## III. ATALA

**PROZEDURA****54. artikulua.—Zehapen-prozedura**

1. Zehapenak ezartzeko, arlo horretan zehatzeko ahala gauzatzeko legez ezarritako prozedurari jarraituko zaio.
2. Zehapen-prozedura hasteko eskumena duen organoak jakiten badu egitateak, arau-hauste administratiboa izateaz gain, arau-hauste penala ere izan daitezkeela, organo judicial eskudunari jakinaraziko dio, eta ez du aurrera jarraituko zehapen-prozedura hasi ondoren, harik eta agintaritzak judicialak epaia eman arte.

Zehapen-prozedura etenda dagoen bitartean, eten egingo dira bai arau-haustearen preskripzio-epea, bai prozeduraren beraren iraungitzea.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Xedapen Indargabetzaile Bakarra**

Indargabetuta geratzen dira Ordenantza honetan jasotako gaiak arautzen dituzten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, horien edukiaren aurkakoak badira.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunera jarriko da indarrean.